

**HITZ MAILEGU BATZUEN ZENBAIT ARAZO  
FONETIKO ETA ORTOGRAFIKO**

ROSA MIREN PAGOLA

Ortografiaz egin diren lanak ez dira izan hain gutxi eta dagoen bibliografia ez da hain urria, baina ia beti uso-norma edo erabilera eta arauaren arteko zirkulo horretan mugitu izan dira honetaz arduratu izan direnak.

Halaz ere, nik esango nuke, ortografiak, eskuarki ematen zaion baino garrantzi handiagoa duela, eta tratamendu zehatzagoa beharko lukeela.

Ortografia komunikabide idatzirako kanala da, eta kultura idatzia indartzen joan den heinean, hotsen eta zeinu grafikoen arteko lotura ere hersten joan da. Badakigu, jakin, fonemen errepresentaketa konbentzionala dela, eta fonema eta hizkiaren artean ez dagoela inolako beharrezkotasunik, baina poliki poliki irudi entzutezkoa eta ikusizkoa elkarrekin lotzen joan dira.

Hizkuntza idatziek mintzatuaren errepresentazio direnez gero, beren nortasuna dute. Bakoitzak bere ortografia du, eta, gure inguruko hizkuntza erromanikoetan ikus daitekeenez, hasieran ortografia, hizkuntza bera bezala, latinetik bazetorkien ere, hizkuntza berri bakoitzak, emeki, bere behar berezietara egokitu behar izan zuen ortografia. Ez zekittin hots berriak, ez eta diptongo berriak ere, nola idatz. Horregaitik hastapenetan aniztasun zalamaltzatsua gerta zen idatziaren formetan, eta filologoan laguntzarik gabe gaizki beharko genuke orduko testuak ulertzeko.

Dena den, idazleei eta inprentari esker hizkuntza horiek normalizatuz joan ziren, horretarako urteak eta mendeak behar izan bazituzten ere.

Euskarak latin-ortografiarekiko menpetasuna agertzen du lehen aztar-netan, nahiz akitanoz idatziriko testuetan nahiz Lerga-ko estelan nahiz Erdi Aroko euskal hitzetan. Eta horrela jarraitu du gero ere, kultura mailan, auzoko hizkuntzei loturik: idazlea nondiko, ortografia handiko. Etxeparek frantsesaren eta gaskoinaren eragina agertuko du bere ortografian;

Leizarragak, eta gaur arteko Iparraldeko idazle denek, frantsesarena. Hegoaldekoek, ordea, “Betolazaren Doktrina” edo “Refranes y Sentencias”-etik hasita (1) gaztelerako ortografiarena.

Bainan euskarak ere, hizkuntza denez, bere sistema fonetiko du; eta sistema honetan ere, bertakoen diren hotsak idaztea gertatu da zalantzagarrien: xistukari frikariak eta afrikariak, alegia. Egun, ortografian, gainditurik ditugu mugaz handik-hemendiko ezberdintasunak, euskal sistema ortografikoa finkaturik dagoela esan daiteke, bere sistema fonetikoaren sistema zainduz.

Alabaina, beste edozein hizkuntzak bezala, euskarak ere kanpotik datorzkion maileguak egokitu egin behar ditu bere sistemara. Bestela, hainbeste kosta izan den batasun ortografiko hori kolokan jarriko da berriro ere, maileguen ortografia askeak sortzen duen aniztasunagatik.

Euskaltzaindiak behin eta berriz erabakiak hartu behar ditu, bideratu duen ortografia batu horrek bidean jarrai dezan. Ortografiak, berez, ez luke eragozpen larregirik aurkitu behar, baina euskaraz ortofonia finkatzen ez den bitartean ortografia ere ez da guztiz finkaturik egongo.

Maileguen egokitzean arazo aunitz sortzen dira; nik horietako bizpahiru argitzeko laguntza-edo eskeini nahi nuke.

## SONANTEEN ONDOKO XISTUKARIAK

Sonanteen [n], [l], [r] Ondoko xistukariak, ahoskeran, frikari ala afrikari ahoskatzen diren ez dago hain garbi. Neutralizazioa gertatzen dela konforme; baina zein da gertatzen den artxifonema? Frikaria ala afrikaria?

Badirudi distribuzio geografikoaren alde makurtzen ari garela. Halaz ere, ez dut uste hain garbi ageri den arazoa denik (2). Bazilazioak testu zaharrenetatik hasita ikusten ditugu (3), eta gaur arteraino ageri den gauza da. Zaila ez bada ere, ez dut frogak pilatzen hasteko asmorik; lekukotasun banakaren batzuk aski izango direla uste dut.

Axularrek, “mintza” hitza bi eratara idazten du (4), eta kontutan hartu behar da, hitz honek konkretuki, nahiko estatu finkoa duela lapurdi eta baztango mintzairetan, frikariaren alde, noski.

(1) Liburu eta idazle hauek aipatzen ditut imprimatueta lehenengoak direlako.

(2) Argitasun gehiago Mitxelenaen *Fonetica Histórica Vasca*, Ed. Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, 1961. (290-91. or.).

(3) Bizkaierako, Mendietaren koadroan (1609) irakurtzen da: “berajauntzat”, eta Urrutiak 1773.eko kopian “jaunzat” aldatzen du. (Bi testuok hemendik jaso ditut: IRIGOYEN, A.: “Estudio de un texto arcaico del dialecto Vizcaino antiguo”, *II Semana de Antropología Vasca*, 1970).

(4) “Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira” (435. or.), “Ezta cer mintçaturic” (470. or.), AXULAR “Gero”, *RZEV*, 4 (1910), ediziotik jasoak.

Eskuarki onartzen da bizkaieraz artxifonema afrikari ahoskatzen dela, baina Prai Bartolomeren “Olgeetan” frikari-afrikari arteko bazilazioak ugari daude, batez ere mailegutan (5).

Aguirre Asteasukoa gipuzkeraren lekuko ona da, eta haren hitzaldietan ere bietariko erabilera usua ageri da (6).

Hizkuntza mintzatutik ere muestreo bat jaso dut, batez ere Nafarroan, sonanteen ondoko artxifonemak nola gertatzen diren jakin nahiz.

Ez ditut espektrogramaz analizatu, eta belarri hutsez ari naiz. Ezin dut, beraz, gauza finkorik eman eta are gutiago erabateko eta behin-betikorik. Hala ere, esango nuke gauza garbia dela mintzaleen artean bazilazioak gertatzen direla, eta ez dutela beti frikari edo beti afrikari ebakitzen. Distribuzioa zein den ez dakit.

Nik uste dut sonanteen ondoko fonema hori afrikaria izanik, sonante eta bokalaren artean ahuldu egiten dela, eta hotik frikaritasunera jotzen duela. Baina solasa, hizketa, zaindua bada, afrikari ahoskatzera jotzen da,

Nafarroako lekukoek “zintzur”, “mintza”, “bertze” oso maiz frikari ahoskatzen zuten, hitzak esaldien barruan sartzen baziren. Baina gero hitza bera bakarrik galdetzen bazitzaien, garbi afrikari ahoskatzera jotzen zuten.

Bizkaieraz ere normalean, eta barka adibidea, frikariak ahoskatzen da “ipurzulo”, baina haserrearan norbaiti ostikada bat agintzen bazaio, orduan oso afrikari egin ohi da.

Bi eragin daude, bada, nire ustez: fonetikoa eta solasaren mailakoa. Sonanteek, bere bokaletasuna dela bide, ondorengo kontsonante afrikariari itsidura biguntzera eragiten diote; hori garbi ikusten da hizketa arrunt eta zaindegubean. Baina, zenbat eta solasa zaindu eta arretatsugo den, fonema afrikatuago ahoskatzen da.

Honekin ez dut esan nahi euskalkitik euskalkira alderik ez dagoenik, baina nik uste dut batezereko eragina ez dela hainbeste geografikoa baizik fonetikoa eta hizketaren arretarena.

Hemendik igaro gaitezke ortografiara. Nola idatz artxifonema hori; “tz”-z ala “z” hutsez? Eta, batez ere hitz mailegutan: “Unibersitate” ala “Unibersitate”, “korrespondentzia” ala “korrespondenzia” eta horrelako beste mila?

Erabaki zehatzik hartu ez bada ere, joera afrikari bezela idaztea da. Baina erabaki falta hori dela bide, zalantzarik ez da falta: “konzilioa”, “monserga”, “Valentzia”... irakurtzen dirugu.

Jokabide nagusia, esan bezala, ezaguna dugu, baina erabaki garbia hartuko balitz mesedegarri gertatuko litzateke. Ea frikari/afrikariaren ahos-

(5) “Diversinoetzat”, “pensau”, “cansauta”, *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrisco-gatz-ozpinduba*, Hordago, 1978.

(6) “Ninzala” / “nintzanean” hiru lerroren barman. *Eracusaldiac*, I, Hordago, 1978. (149. or.).

kera ez delako euskalkien arazoa bakarrik, baizik, hizketaren arretarena, nire iritziz, eta gaurko jokabidea onartuz, norma horrek, ahoskera zainduari jarraituz, afrikariaren aldekoa izan beharko luke.

Prolemarik latzena izen geografikoarena izango litzateke. Erabakiren bat hartu beharko da logikotasunez joka dezagun: “Valentzia” idaztean jatorrizko ezpainbiko ozenaren ortografia errespetatzen bada, zergatik ez errespetatu jatorrizko xistukariarena ere edo alderantziz? (7).

### “X” ORTOGRAFIKOAK SORTZEN DITUEN ARAZO BATZUEZ

[š]xistukari, sabai-aurreko, frikari, gorrak euskaraz idazteko bi era nagusi izan ditu. Hegoaldean “x”-z idazteko tradizioa egon da, “j” agertzen bazaigu ere: “eleja”, “quejoa”, “gajoo”, “Refranes y Sentencias”en eta “Betolazaren Doctrinan”; baina horien parean idazten dute baita ere: “elexa”, “exilie”... (8).

Iparraldean “ch” digrama izan da tradizionala, frantseseko ortografiari jarraituz, hala ere, Etxeparek esaterako “x” ere erabiltzen du: “xahu”, “gaixto”, “gaixo”. Etxeparentzat balore anfibilogikoa zeukan “x” letrak: [č]apikari-hobietako, afrikari, gorra ere “x” letraz idazten bait zuen. Baina, orohar, Iparraldeko idazleek [š] hotsa “ch”-z idatzi izan dute (9).

Hots horri dagokionez ortografia normalizaturik dago. Hala ere, letra honekin maileguetan agertzen diren arazoak ikusi aurretik beharrezko deritzait /\* j/ fonemaz zerbait esatea (10).

(7) “Valencia” eta horrelakoen idazkera izen geografikoei buruz erabakitzen denaz batera joango da.

Izen geografikoei buruz, bi bide nagusi har daitezke. Bata, jatorrizko izen eta hitz-tara zorrotz lotu: “France”, “Valencia”, “Chile”, “England”...; bestea, gure artean ohiturazko diren izenak hartu eta geure ortografia arauetara lotu: “Frantzia” edo “Frantze”, “Balentzia”, “Txile”, “Ingalaterra”...

Lehenengo esan dugun bideak, hots, jatorrizko hitzetara lotzeak erabaki-ezinezko prolemak sortuko litzuzke, eta gainera ez luke inondik ere batasunik lortuko.

Bigarrenak, geure ohiturazko hitzak (gaztelatik eta frantsesetik hartu ditugunak, alegia) onartzeak, berriz, oso asko erraztu eta txuliatzen ditu prolema gehienak, eta nahiko batasun handia sortzen du, ez bait dago alde handirik izen geografikoetan, frantsez ala gaztelaniaz izan.

Eta idatzi ere, geure ahoskera eta ortografia arauetara lotuta idatzi beharko genituzke. Hauxeda jokabiderik logikoena eta batasunerako onena. Gazteleniako edo Frantseko ortografieta makurtzea desegoki eta garestiegi litzateke, eta menpetasun gogorre-gia ere suposatuko luke.

Honen kontra beti gauza bera ekartzen da: Izen asko harrigarri gertatuko zaizkigula. Hori ukatzerik ez dago, baina euskara estandarizatu nahi bada, hamaikatxo gauza harrigarritara egin beharko dugu.

(8) Hots honen errepresentazio grafikoz xehetasun gehiago nahi bada, ikus: MITXELENA, K.: “Miscelanea Filologica Vasca”, *FLV* 30 (1978), 393. or. eta hur.

(9) Gavelek horrela dio: “Les basques français ont une extreme répugnance pour l’x employé avec cette valeur (“x” = [š] esan nahi du) parce que pour leurs ancêtres equivalait à “ts”, et non au “ch” d’aujourd’hui”. GAVEL, H.: “Sur l’orthographe de la langue basque”, *Gure Herria*, 13, 1933 (178. or.).

(10) /\* j/ fonemaz denbora batean bokale, gero erdi-kontsonante, gaur kontsonante sabaiko frikari ozena izatera, zenbait euskalkietako mintzairetan, bilakatu den hotsa adierazi nahi dut.

Hots honek euskararen fonetikan nortasun handia du eta euskalkien mugak seinatzeko ezagugarri bikaina da. Hegoaldean gazteleraren interferentzia dela bide gero eta egoera mugikorra da. Nolanahi ere, era ahoskatara ahoskatu arren, idatzi beti “j”-z idazten da.

XVI. mendeko idazleek fonema hori idazteko modu bat baino gehiago zuten: Iparraldekoek “I-”, “i-”, (inoiz “g-” Etxeparengan) (11); Hegoaldean, berriz, “I-”, “-j-”, “y-”: “cejara”, “anaje”, *Refranes y Sentencias-en* eta “Betolazaren Doktrinan”, eta lan hauetan inoiz ez da agertzen “x” letra /\* j/ fonema idazteko (12).

Idazle hauek maileguetan gaztelerako idazkerari jarraitzen zioten. Hegoaldekoetan “proximu”, “luxuria”, eta abar aurki daitezke, eta Leizarragarengan ere “proximoa” eta antzerakoak. “x” letrak gazteleraz [ʃ] sabai-aurreko, xixtukari, frikari, gorra azaltzen du. Hots hau XVI. mendean belaretuz zihoan eta XVII.-ean belarizatuko da guztiz.

Ageri denez, bazuen zentzurik mailegu horiek “x”-z idazteak, gutxienez gazteleraz ere horrela idazten zirelako, eta ahoskatu ere hor nonbait ahoskatuko zirelako.

Gazteleraren ortografia normalizatu zenean, belare, frikari gorra idazteko “j” bakarrik ezarri zenean, euskarak ere bide berdina jarraitu zuen. Ahoskeran, M.<sup>a</sup> Teresa Echenique-k dioen bezala: “En vasco, el proceso de adaptación de este sonido extraño está ya cerrado y los préstamos castellanos se toman directamente con pronunciación [x]” (13).

Baina azken urte hauetan fenomeno berri bat sortu da, eta ez dakit ahoskeraren ala idazkeraren eraginez sortu den. Nork ez du irakurri kaleetako hormetan: “Errefuxiatuak etxera”? “Paradoxa”, “konplexoa”, “xake-mate” eta abar irakur daitezke edozein aldizkaritan.

Arazoa hau da: gero eta usuago hartzen ditugu [x] hotsa duten gaztelerako hitzak eta “x” hizkiak idazten ditugu, eta, jakina, [ʃ] hotsaz ahoskatzen: [errefuʃiatu], [paradoʃa].

Batasuna ortografiaren bidetik eramateak bere arriskuak ditu, ahoskera inposatzen duelako. Gure haurren ahotan gero eta maizago entzuten dira [botila], [mutila], [mingaina]. Gaztelerako [x] euskaraz “x”-z idazten badugu, gauza harriagarriak entzungo ditugu.

Gaztelerako [x] euskaraz “x” hizkiak emateak polimorfismo grafikoa, fonetikoa eta morfologikoa sortuko ditu. Eta diakronian gaudituz zen arri-

(11) Baxe-Nafarreraz ahoskatzen den afrikariaren aztarna, agian. Ikus: MITXELENA, K.: *Fon. Hist.* 170-71. or.).

(12) Ikus: MITXELENA, K.: “La Doctrina Cristiana de Betolaza”, *BRSVAP*, XI, (1955), (88. or.). Betolazaren Doktrinaz ematen ditudan zitak Mitxelenaren edizio honetatik jaso ditut.

(13) M.<sup>a</sup> Teresa ECHENIQUE ELIZONDO: “Implicaciones dialectales y repercusión fonológica en el sistema palatal vasco derivadas de la interferencia de un fonema castellano”, *REL* 9, 1 (1979), (60. or.).

kua, bi hots bat egitearena (14), egun, berriro gerta daiteke erderazko maileguak hartzerakoan “x” hizkiak aldatzen baditugu.

Nire ustez, arazo hau ortofoniarekin batera joan behar da. Euskal komunikabideak hedatzen doazen une honetan; beharrezko gertatzen da ahoskera normatiboa sortzea. /\* j/ fonemaren errealizazioa nola ahoskatu, [j] ala [x]? Ortografian gaztelerako [x] hotsa, grafia “j”, “g<sup>e,i</sup>”, euskaraz “j”-z idatziz gero mailegutun, atek irekita uzten dira nahiz batera nahiz bestera ahoskatzeko. “x” hizkiak baliatzen bagara, ordea, beti [š] ahoskatzera eramango gaitu, jatorrizko [š] hotsarekin nahastuz eta gainera /\* j/-aren errealizazioak [š] hotsez ahoskatzera eramango lituzke. Hauen ondorioz euskararen sistema fonologikoan aldaketa bortitzak sortzeko arriskua gertatuko litzateke.

Hizkuntzaren normalizatze ekintzaren alderdi garrantzitsua hizkuntz idatziaren estandarizazioa da, hau da, aldakien artean aukeratu eta ortografian finkatu, edozein polimorfismo, ahal den neurrian, txuliatu dadin.

Kasu honetan, gaztelerako “j”, “g<sup>e,i</sup>”, euskaraz beti “j”-z idaztea askoz hobe izango litzateke, ez dituelako prolema sortzen, eta ortofonia araurik eman nahi balitz ere noizbait, ez lituzke eragozpenik sortuko. Dena den, nik esan nahi dudana zera da: euskal sistema fonologikoan hain garrantzi handiko fonema tartean dagoenez gero, arreta handiz joka behar litzatekeela.

“x” letraz ari naizenez gero, ezin dut aipatu gabe utzi gaztelerako “x” ortografikoaren aldaketa euskaraz.

Gaztelerako “x” [ekis] letrak bi ahoskerari erantzuten die batik bat: “ks” eta “s” hutsari.

Euskarak hartzen dituen mailegutun gaztelerako grafia eta ahoskera errespetatzen dira. Egia esan, “x” grafia errespetatzea desegokitzat jotzen dut, ez diolako mailegu hauetan euskal ahoskerari erantzuten eta euskaraz nahasmenerako ziria sartzen duelako.

“x”-ri eusteko hitzen internazionaltasuna aipatzen da. Baina hitz internazionalak ere hainbesteko aldaketak jasaten dituzte hizkuntza batetik bestera. “Testu” hitza bospasei hizkuntzetan ikustea nahiko da hori egiaztatzeko.

Gure artean, testu berean horrelakoak ikus daitezke: “exigitu”, “paradoxa”, “xake-jokoa”. Zein irizpide erabili da “paradoxa” eta “xake”-ren arauera “exixitu” ez idazteko? Eta “exixitu” idatzi balu, hitz berean letra batek bi balore izango lituzke (15).

Hartzen den erabakiak grafema/hotsen erlazioa gorde beharko luke. Erlazic hori, nire ustez, eta gaztelaniaz gertatzen dena ere kontutan hartuta, horrela zaintzen da hobekien: Gaztelaniaz “x”-a bi bokalen artean

(14) *Ibidem*, (63. or. eta hur.).

(15) Adibideak *Jakin*, 25, Urria-Abendua, 1982-tik hartuak.

dagoenean, batez ere hitz teknikoetan, “ks” ahoskatzera jotzen da, eta euskaraz ere horrela egiten dugu gehien bat: [sintaksia], [leksikoa]; Gazteleraz “x”-ari kontsonante batek jarraitzen dionean, hiru kontsonante pilatzen dira ahoskeran. Eta hiruko taldeak bitan laburtzera jotzen du, eta berdin euskaraz ere: [testua] (16).

Hitz batez esango nuke:

- 1.- Gaztelerako “x” euskaraz “x”-en bidez ematea kaltegarritzat jotzen dut.
- 2.- “x” hori euskaraz gordetzeak egin dezaken mesedea, bestalde, murrizta da, eta gainera “ks”-z edo “s”-z emateak ez luke mesede hori asko eragotziko, ezertan eragotziko balu.
- 3.- Gaztelerako “x” bi eratarara emango nuke euskaraz: bokale artekoa denean “ks”-z; kontsonante batek jarraitzen dionean “s”-z.

Norbaitek esan dezake zergatik ez beti, baita bokale artean ere, “s” hutsez? Batetik, “k” hotsa ahoskatu egiten delako; bestetik, eratorri maileguetan “k” hori agertzen delako: “sintaksi”, “sintaktiko”; baita, gaztelerako beste mailegu askotan ere “k” inplosibo hori ageri delako: “lektzioa”, “teknikoa”, “faktura”, ...; eta nahi bada ere, baita posizio horretan, hitz bukaeretan, ez delako hots hori batere arrotz gertatzen euskaraz.

---

(16) Beste elementu batzuk ere (hitzaren teknikotasuna, erabileraren ugaria...) badute eragirik, baina laburreraren mesedetan ez naiz ñabarduretan sartzen.